

Hizkuntzak Biziberritzeko ADITU IKASTAROA 2026

PRENTSA DOSIERRA

AURKIBIDEA

- **Zer da Aritu?** - 3. orrialdea
- **Helburua** - 3. orrialdea
- **Partaideak** - 4-10. orrialdeak
- **Irakasle edota formatzaileak** - 11. orrialdea
- **Formazioaren gaitetia** - 12. orrialdea
- **Bisita nabarmenduak** - 13-18. orrialdeak
- **Antolatzailea eta babesleak** - 19. orrialdea

ERANSKINAK

- **I. Eranskina: Garabide Elkarteari buruzko informazioa** - 20-22. orrialdeak
- **II. Eranskina: BIHAR Kongresua** - 23. orrialdea

ZER DA ADITU?

Urtero antolatzen den **Hizkuntzak Biziberritzeko Aditu formazioa**, nazioarteko prestakuntza-programa aitzindaria da. Hizkuntza gutxituak dituzten komunitateetako 15-20 ordezkariak parte hartzen dute bertan, eta helburua da euskararen biziberritze-prozesuan metatutako ezagutza eta esperientziak partekatzea.

Programaren koordinazio-lana Garabide Elkartek egiten du, euskal hizkuntza normalizazioan aditu diren eragileen eta hizkuntza gutxituen alde diharduten aktibisten arteko zubi-lana eginez.

Parte-hartzaileek hilabete eta erdiko egonaldia izaten dute Euskal Herrian, eta tarte horretan aukera dute hizkuntza biziberritzeko praktika arrakastatsuenak bertatik bertara ezagutzeko. Esperientzia horien artean, bai gizarte zibiletik sortutako ekimenak, bai administrazio publikoek bultzatutako politikak aztertzen dira.

Formazio-esparru akademikoari dagokionez, programak 100 ordutik gorako prestakuntza teoriko eta praktikoa eskaintzen du. Saio horietan, euskal soziolinguistikan eta hizkuntza biziberritzeko estrategietan aditu diren irakasleek parte hartzen dute, parte-hartzaileei euren komunitateetan aplikagarriak izango diren tresnak eta ezagutzak eskaintzeko.

HELBURUA

Aditu formazioaren xede nagusia da parte-hartzaileei oinarri sendoa ematea hizkuntza biziberritzearen arloan, eta aldi berean, euskararen esperientzia inspirazio-iturri gisa eskaintzea. Izan ere, munduan oso gutxi dira hizkuntza gutxitu baten transmisioan gainbehera eten eta berpiztea lortu duten prozesuak. Euskara da horietako bat: gizartearen konpromiso kolektiboari esker, azken 50-60 urteetan joera negatiboa irauli eta hizkuntzaren transmisioari bide berria irekitzea lortu du.

Esperientzia hori, gaur egun, erreferente eta eredu bilakatu da hizkuntza gutxituen komunitate askorentzat, eta Aditu formazioa da ezagutza hori nazioarteko esparruan zabaltzeko tresna nagusietako bat.

PARTAIDEAK

Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programaren aurtengo edizioan 10 komunitate ezberdinetatik datozen 11 hizkuntza aktibistek parte hartuko dute. Horietarik gehienak Hego Amerika eta Erdialdeko Amerikatik etorriko dira, baina badira baita Afrikakoak ere. Erdiak emakumezkoak dira eta beste erdiak gizonezkoak. Badira aktibista gazteak zein adinekoagoak. Badira herri txikietatik zein hirietatik datozenak ere. Ofizio ezberdinak dituzte.

Beraz, denak ala denak ari dira nor bere hizkuntza gutxitua biziberritzeko lanean, baina, bakoitzak baditu bere ezaugarriak, eta txosten honetan programa honetako partaideen nondik norakoak jasoko ditugu.

Jarraian, partaide bakoitzaren fitxa duzue

—

1. Patricio Maldonado Quinchuqui - Kitxua

	Hizkuntza gutxitua:	kitxua
	Bestelako hizkuntza(k):	gastelania
	Komunitatea:	Kitxua
	Herrialdea / estatua:	Imbaburako probintzia, Ekuador
	Erakundea:	<i>Sisariy</i>
	Jaiotze-urtea:	1976
	Lanbidea:	Itzultzailea eta irakaslea. Gaur egun, bereziki, helduen irakaskuntzarako hezkuntza-materialaren sorkuntza dihardu.

2. Asmaa Aouattah - Amaziga

	Hizkuntza gutxitua:	Amaziga
	Bestelako hizkuntza(k):	Arabiera, katalana, gaztelania, frantsesa eta ingelesa
	Komunitatea:	Rif
	Herrialdea / estatua:	Maroko eta Katalunia
	Erakundea:	<i>Agraw</i> eta <i>Alliance pour Tamazight</i> erakundeak
	Jaiotze-urtea:	1970
	Lanbidea:	idazlea, irakaslea eta hizkuntza aktibista

3. Miguel Angel Verón Gómez - Guaranía

	Hizkuntza gutxitua:	guaranía
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	guaranía
	Herrialdea / estatua:	Caaguazú departamentua, Paraguai
	Erakundeak:	• <i>Universidad Nacional de Asunción,</i> • <i>Yvy Marãe'ỹ</i> • <i>Instituto Técnico Superior de Estudios Culturales y Lingüísticos</i> • <i>Academia de la Lengua Guaraní</i> • <i>Ñe'ẽ de Investigación Lingüística y Cultural</i> aldizkaria
	Jaiotze-urtea:	1968
	Lanbidea:	irakaslea, ikertzailea eta idazlea

4. Delfina Libia Reyes Chávez - Mixea



Hizkuntza gutxitua:	Mixea
Bestelako hizkuntza(k):	Ingelesa, gaztelania eta frantsesa
Komunitatea:	Mixea
Herrialdea / estatua:	Oaxaca, Mexiko
Erakundea:	<i>Nemuk</i>
Jaiotze-urtea:	1960
Lanbidea:	irakaslea

5. Diego Armin Pacheco – Yukatango maia



Hizkuntza gutxitua:	Maayat'aan
Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
Komunitatea:	Yukatango maia
Herrialdea / estatua:	Campeche estatua, Mexiko
Erakundea:	<i>U Péekbal Waye'</i>
Jaiotze-urtea:	1982
Lanbidea:	hizkuntzalaria eta hizkuntza aktibista

6. Lina del Rosario Ancan Neculman – Maputxea

	Hizkuntza gutxitua:	<i>Mapuzugun</i>
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	Maputxea
	Herrialdea / estatua:	Wallmapu, Txile
	Erakundea:	<i>Junji</i>
	Jaiotze-urtea:	1995
	Lanbidea:	irakaslea

7. Elutzman Zunagua Alvarado - Ketxua

	Hizkuntza gutxitua:	Ketxua
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	Ketxua
	Herrialdea / estatua:	Potosi departamentua (Bolivia)
	Erakundea:	<i>Wawa Wasi “Cancana Pampa”</i> (Raqaypampa)
	Jaiotze-urtea:	1981
	Lanbidea:	Lehen Hezkuntzako irakaslea da Guido Villa Gómez Institutu Tekniko Humanistan. Horre zgain, Artzain Ebangelikoa ere bada.

8. Isabel Copa Sepa - Bubia

	Hizkuntza gutxitua:	Bubia
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	Bubia
	Herrialdea / estatua:	Bioko (Ekuatore Ginea)
	Erakundea:	Ėbóbě Ėvóvě
	Jaiotze-urtea:	1989
	Lanbidea:	irakaslea

9. Rosa Beatriz Xiquitá Baján - Kaqchikela

	Hizkuntza gutxitua:	Kaqchikela
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	Kaqchikela
	Herrialdea / estatua:	Chimaltenago departamentua, Guatemala
	Erakundea:	Guatemalako Maia Hizkuntzen Akademia
	Jaiotze-urtea:	1996
	Lanbidea:	irakaslea

10. Maria Fernanda Neculman Torres - Maputxea

	Hizkuntza gutxitua:	mapuzugun
	Bestelako hizkuntza(k):	gaztelania
	Komunitatea:	Maputxea
	Herrialdea / estatua:	Puelmapu, Argentina
	Erakundea:	Kulturarteko Hezkuntza Elebiduneko Taldea (Argentina) <i>Txokiñ Wüñotuleaiñ Taiñ Kewünh</i>
	Jaiotze-urtea:	1994
	Lanbidea:	irakaslea eta komunikatzailea

11. Arquimedes Yatacue Caso – Nasa yuwe

	Hizkuntza gutxitua:	Nasa yuwe
	Bestelako hizkuntza(k):	Gaztelania
	Komunitatea:	Nasa komunitatea
	Herrialdea / estatua:	Cauca, Kolonbia
	Erakundea:	-
	Jaiotze-urtea:	1996
	Lanbidea:	nasa yuwe irakasteko eskoletako koordinatzailea

12. Milouda El Hankari El Bouzidi– Amaziga (partaideen koordinatzailea)

	Hizkuntza gutxitua:	amaziga
	Bestelako hizkuntza(k):	Gaztelania, frantsesa, arabiera
	Komunitatea:	Amaziga
	Herrialdea / estatua:	Maroko
	Erakundea:	-
	Jaiotze-urtea:	1968
	Lanbidea:	soziologian lizentziatua, ikerlaria eta idazlea

13. Mónica Acosta Garcia (Genero arduraduna)

	Hizkuntza gutxitua:	-
	Bestelako hizkuntza(k):	Gaztelania
	Komunitatea:	-
	Herrialdea / estatua:	Kolonbia
	Erakundea:	-
	Jaiotze-urtea:	-
	Lanbidea:	Soziologia Juridikoan doktorea da, Zuzenbidean, Nazioarteko Harremanetan eta Nazioarteko Kooperazioan formatua.

IRAKASLE EDOTA FORMATZAILEAK

- Monica ACOSTA Garcia
- Xan AIRE Hasquet
- Juan Luis AREXOLALEIBA Biteri “Gatxi”
- Iñaki ARRUTI Landa
- Asier BAGLIETO Gabilondo
- Andoni BARREÑA Agirrebeitia
- Koldo BIGURI Otxoa de Eribe
- Ander BOLIBAR Zabala
- Leire DIAZ DE GEREÑU Lasaga
- Ima ELEXPURU Egaña
- June FERNANDEZ Casete
- Iban GARTZIA Rubio
- Viviana GONZALEZ Garzon
- Eneko GORRI Gantier
- Itziar IDIAZABAL Gorrotxategi
- Imanol IGEREGI Bilbao
- Paula KASARES Corrales
- Esther LAKASTA Pérez-Ilzarbe
- Izar LARRAÑAGA Telleria
- Ainhoa LASA Agirre
- Iñaki MARTINEZ DE LUNA Perez de Arriba
- Ane ORTEGA Etcheverry
- Jon SARASUA Maritxalar
- Maiteder SASIETA Murua
- Nerea URIARTE Goitia

FORMAZIOAREN GAITEGIA

1. Hizkuntza soziologiaren oinarriak eta abiapuntu etikoak

- Hizkuntzak munduan: egoeraren diagnostikoa eta hizkuntza ekologiaren oinarriak
- Hizkuntza biziberritzeko soziolinguistika
- Hizkuntza biziberritzeko gako nagusiak
- Hizkuntza, generoa eta sexu aniztasuna

2. Hizkuntzak biziberritzeko lan esparruak

- Hizkuntzak biziberritzeko eremuak (sarrera)
- Corpusa
- Familia transmisioa
- Hezkuntza
- Helduen hezkuntza
- Hezkuntza ez-formala (aisialdia)
- Komunikabideen prozesua
- Ingurune digitala eta teknologia berriak
- Kulturgintza
- Enpresa eta erakundeek hizkuntza-eraldaketa

3. Hizkuntza biziberritzeko prozesua

- Diagnostikoa, planifikazioa eta ebaluazioa
- Gizarte aktibazioa
- Erakunde aktibazioa
- Kontakizunaren osaketa
- Eragileak
- Estrategien identifikazioa
- Baliabide ekonomikoak eta autofinantzaketa
- Munduko biziberritze-praktika inspiratzaileak
- Euskararen egoera eta hizkuntzak biziberritzeko tresnak

4. Ekintza sozialerako oinarriak eta tresna osagarriak

- Jokabide linguistikoetan eragiteko tailerra
- Genero tailerra
- Sentsibilizazio saiotarako tresnak
- Proiektuen garapenerako oinarriak
- Itzulpengintza eta interpretazioa

BISITA NABARMENDUAK

1. ASTEA (irailaren 18tik 27ra)

- **Aurkezpen Eguna eta Aretxabaletako Udaleko harrera**

- Datorren ostiralean, irailaren 18an, ezagutuko dute elkar aurtengo Hizkuntzen Biziberritzeko Formazioa egingo duten parte-hartzaileek. Egonaldiaren aurkezpen formala egingo zaie (edukien, irakasleen, parte-hartzaileen eta protokolo/araudien aurkezpenak, besteak beste), eta elkar ezagutzeko jarduerak ere burutuko ditugu.
- Bestalde, egonaldia Aretxabaletan izango denez, bertako udalean harrera ofiziala egingo zaie aurten ere, eta Gari Iturbek, Aretxabaletako alkateak, ongi etorria egingo die datorren irailaren 21ean, astelehenean.

- **Euskararen Etxera bisita (Bilbo)**

Hainbat esperientziaren artean, **Euskararen Etxea** ezagutuko dute parte hartzaileek irailaren 23an, asteazkenean,, Bizkaiko Foru Aldundiarena dena eta Azkue fundazioak kudeatzen duena. Euskalgintzako hainbat elkarte biltzen diren zentroaren kudeaketa ezagutzeaz gain, bertan dagoen **Euskararen Interpretazio Zentroa** ezagutuko dute, bisitari asko jasotzen dituen, eta oso modu ludikoak eta errazean erakusten dituen hizkuntzen inguruko hainbat problematika: euskararen biziberritze esperientzia bera, eta baita hizkuntza aniztasuna, munduko hizkuntzen mapa, edo hizkuntzen galera bera ere.

- **BIHAR Kongresua**

Aurtengoan, BIHAR Nazioarteko Kongresura joateko aukera berezia izango dugu, izan ere, irailaren 23tik 26ra, Euskal Herri mailan, Biziberritze Prozesuan dauden Hizkuntza Komunitate Gutxituen Nazioarteko Kongresua burutuko da.

Hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua lelopean, kongresuaren helburua mundu mailako hizkuntza komunitateak elkartzea da, biziberritze-diskurtsoen inguruan hausnartzeko eta ikuspegi eraldatzaile batetik maila globalean kokatzeko. Lau egunetan barrena, mundu mailako adituak, hizkuntza-aktibistak eta hizlariak elkartuko dira **Bilbo, Irun eta Hendaia** artean.

- Ekimenaren informazio gehiago: <https://bihar.eus/> webgunean eta **dossier honetako II. Eranskinean**

2. ASTEA (irailaren 28tik urriaren 4ra)

- **Andoaingo Martin Ugalde kultur parkera irteera**

Irailaren 30ean, asteazkenean, Andoaingo **Martin Ugalde kultur parkea** bisitatzeko aprobetxatuko dugu, euskararen normalizazioan pisua duten eta lan handia egiten duten erakundeak ezagutuz. Lehenik, **Berria egunkaria** bisitatuko dugu eta horrela, Adituko parte-hartzaileek nazio ikuspegia duen euskara hutsezko egunkari bakarraren berri izango dute, bertako kazetarien eskutik. Segidan, bisita didaktiko gisa, pizkundearen baitan herritarren kontzientziazio aktiboa pizteko xedea duen **Euskalgintzaren Kontseilua**, euskararen baitako datu-bilketak burutu eta bere sozializazioa indartzea helburutzat duen **Soziolinguistika Klusterra**, eta euskal pailazogintzan erreferentetzat ditugun **Irrien Lagunak Kluba** ezagutuko ditugu.

- **Nafarroara irteera**

Sakanako mankomunitatean zehar, bertako zein **Nafarroako Pirinoetako euskara planak** ezagutzeko aukera izango dugu, instituzioetatik hizkuntza gutxitua bultzatzeko zer egin litekeen ikusteko adibide on gisara, hain zuzen ere. Horrez gain, Sakanako zenbait proiektu interesgarri ere ezagutuko dira, hala nola **Guaixe hedabidea** eta **Beleixe irratia**.

Iruñean, **Euskararen Nafar Institutua** den **Euskarabidea** bisitatuko dugu hizkuntza eta kulturaren transmisioari buruzko formazio teorikoa jasoz.

Eta urteroko bisita egingo dugu **Tafallako ikastolara**. Nafarroako eremu “ez-euskaldunean” dagoen ikastola honek urtero beso zabalik jasotzen du Garabideko taldea. Kasu askotan komunitate indigenen errealitatetik gertuago dagoen kasua da Tafallakoa, eta horrelako testuinguru batean hizkuntzaren alde zer lan egiten duten erakutsiko digute bertako ikasle, irakasle eta gurasoek.

Bi egunetako irteera osatuko dugu, honela, urriaren 1 ostegunetik, 2 ostiralera.

- **Kilometroak**

Aurreko urte batzuetan egin bezala, aurtengoan Lazkaon izango gara, Kilometroetan, ikastolen aldeko jai handian, datorren urriaren 4an, igandean.

3. ASTEA (urriaren 5etik 11ra)

- **Arizmendi ikastolara bisita**

Hezkuntzaren alorrean, euskararen biziberritze esperientzian ezinbestekoa izan da eta da hezkuntzak egin duen lana ezagutzea. Horien artean, arrakastatsua eta esanguratsua **Arizmendi ikastola** da, **Eskoriatzan**. Aurten ere, bertako lana ezagutzeko aukera izango dugu, Almen (LH eta DBH) zentroan, datorren urriaren 5ean, astelehenean.

- **Gasteizera irteera**

Eusko Jaurlaritzako Lankidetzako Agentziak finantzatzen du, urtero, Hizkuntzak Biziberritzeko Aritu formazioa, Garabiderekin daukan hitzarmenaren bidez. Agentziaren esanetan, euskal gizarteak munduarekin konpartitzeko daukan esperientzien artean, euskararen biziberritze esperientzia da interesgarrienetako bat, euskaldunon ikur edo bandera izan litekeena. Horregatik laguntzen du urtero Aritu formazioa. Urriaren 7an, asteazkenean, Agentziako kideek eta hizkuntza aktibistek elkar ezagutzeko aukera izango dute.

Egun hau aprobetxatzen dugu **Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetza** bisitatzeke ere, eta instituzionalki euskararen baitan sortu eta burutzen diren politiken berri izaten dugu bertako arduradunen eskutik, hain zuzen ere erakunde honek Garabiderekin duen hartu-emanaren erakusle.

Era berean, **EHUko Itzulpen eta Interpretazio Saileko** kideen laguntzaz, Gasteizko letren fakultatera bisita egiten du Garabidek. Bertan, EHUko instalazioak baliatuta, itzulpen eta interpretazioaren garrantzia azaltzen duen formazioa jasoko dugu aurten ere, aipatutako egunean.

- **Bilbora irteera**

Urriaren 8an, ostegunean eta 9an, ostiralean, Bizkaiko hiriburuan izango gara. Alor instituzionalean **Bizkaiko Foru Aldundiko** ordezkariekin elkartuko gara, eta Urtzi Urrutikoetxea kazetariaren eskutik, euskarak Bilbon duen presentzia ere ezagutuko dugu bisita gidatu baten bidez.

Era berean, erdarak nagusi diren hiri batean euskaraz bizi ahal izateke gune bat nola sortu eta gestionatzen den ezagutuko dute, **Zenbat Gara** euskara elkarteko kideen eskutik, **Bilbo Hiria Irratia**, **Gabriel Aresti Euskaltegia** eta **Bilboko Kafe Antzokia** bisitatuz. Era berean, Bilboko egonaldia aprobetxatuko dugu **Euskarabentura** eta **AEK zein Korrika batzordea** ekimen sozialen berri izateke.

4. ASTEA (urriaren 12tik 18ra)

- **Ipar Euskal Herrira irteera**

Administratiboki laguntza gutxirekin, eta ofizialtasunik gabe, lan eskerga egiten ari dira iparraldean, orokorrean, euskararen transmisioari eta biziberritzeari eutsi nahian. Azken aldiko esperientzia ederrenetako batzuk ezagutuko ditugu bertan, datorren urriaren 12tik 13ra bitartean.

- Alde batetik, **Hendaia edo Biriatuko ikastola** bisitatuko dugu, Nafarroan bezala, euskarak ofizialtasunik ez duen eremuan, hezkuntza-prozesuak aurrera nola egiten duen ikasiz.
- **Kanaldude Telebistakoen** bisita ere jasoko dugu, urtero legez; Aldude bailaratik harago erreferentziazkoa bihurtu den tokiko hedabidea
- Iparraldeko bisita honetan, ezinbesteko aliatu bihurtu zaio Garabideri **Plazara kooperatiba**. Hainbat proiektutan ari gara bi elkarteak elkarrekin lanean, eta iparraldeko egoera ezagutzera, ezinbestean, euren eskutik joango gara aurten ere. Plazararen lana ezagutzeko aukera ere izango dute parte hartzaileek, eta Ipar Euskal Herriko egoera soziolinguistikoa nolakoa den azalduko digute.
- **Baionan**, solasaldiak eta dokumental saioak ere izango ditugu, eta baita sentsibilizazio saioa ere, bertako Biltxoko elkartean.

- **Beasain eta Donostiara irteera**

Ostegunean, urriaren 16an, alor instituzionalean, **Beasaingo Udala** bisitatuko dugu, non herri honetako udalak urtero hartu ohi duen Aditu formazioko bisita.

Jarraian, **Donostiara** joango gara, eta bertan araututako euskararen gakoak ezagutuko ditugu bertako **Euskaltzaindiko** egoitzan.

- **Tolosako egonaldia**

Ostiralean, urriaren 17an, **Tolosako Udalarekin** dugun hitzarmenari esker, bertan igaroko dugu eguna; eta hainbat jarduera eta sentsibilizazio-saio burutuko ditugu **Galtzaundi elkartearen** eskutik.

5. ASTEA (urriaren 19tik 25era)

- **Praktikaldiak eta proiektuak**

Aste honetan zehar, ikasleek euren intereseko praktikaldiak egiteko aukera izango dute hizkuntzaren biziberritze estrategiak landuko lituzketen arlo ezberdinetan; era berean, beraien intereseko proiektu bat definitzen ere ariko dira, euren hizkuntza biziberritzeko estrategiak definitzeko.

- **Sentsibilizazio saioak**

Hainbat sentsibilizazio saio zuzenean jarraitzeko aukera izango dugu, besteak beste, **Elizondon, Barañainen, Zumaian eta Sakana eskualdean.**

- **Truke gastronomikoa eta Gure Zirkua**

Urriaren 22an, ostegunean, urteroko truke gastronomikoaz gozatzeko aukera izango dugu Aretxabaletako Larriño elkartean. Giro alai eta lagunkoian, komunitate ezberdinetako loturak indartzeko aukera ederra izango dugu.

Hurrengo egunean, berriz, astea giro onean errematatzeko, Euskal Herriko euskarazko zirku ibiltaria, **Gure Zirkua** ikustera joango gara Errenteriara.

6. ASTEA (urriaren 26tik 29ra)

- **Lekeitiora irteera**

Garabidek Lekeitioko Udalarekin lotutako hitzarmenari esker, egun osoko irteera egingo dugu urriaren 26an, astelehenean, Bizkaiko kostaldeko herri honetara. Bertako ikastetxeak bisitatzeaz gain, sentsibilizazio saio bat burutuko dugu, eta besteak beste, **Errigora** proiektuaren berri ere izango dugu

- **Proiektuen aurkezpena**

Bi astetako prestaketaren ondoren, ikasleek euren proiektuak aurkeztuko dizkigute azken egunaren bezperan, hilaren 28an, asteazkenean.

- **Itxiera ekitaldia eta agurra**

Hilabete eta erdiko egonaldiaren ostean, azken agurra emateko jaialdi berezia izango da aurten ere, datorren ostegunean, urriaren 29an. Bertan izango dira Adituko parte hartzaileak, irakasle lanetan aritu diren adituak, bisitatu diren elkarteetako kideak eta laguntza ematen duten instituzioetako kideak, besteak beste. Herritar koadrila bat ere bertan izango da.

Kultura anitzetako dantza, kantu, bertso eta musika izango da, eta ordu eta erdiko ekitaldian, euskaldunok eta munduko aktibistek elkarrekin gozatuko dugu, hizkuntza gutxituen aldeko festa eder honetan.

ANTOLATZAILEA ETA BABESLEAK

ANTOLATZAILEA:



BABESLEAK:



LANKIDETZARAKO ETA
ELKARTASUNERAKO
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN Y
SOLIDARIDAD



Beasaingo Udala



**Mondragon
Unibertsitatea**

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

I. ERANSKINA: GARABIDE ELKARTEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Nor gara:

Esaldi bakar batean esateko, Garabide **hizkuntza lankidetzarako Gobernuz Kanpoko Erakundea** da. Beraz, kooperazioan lan egiten dugu Hegoaldeko herriein, baina lankidetza hori hizkuntzatik abiatzea da guk proposatzen dugun berrikuntza eta horretan aritu gara buru-belarri 2005etik.

Kontzeptua: hizkuntza lankidetza

Hizkuntza lankidetza diogunean, ordea, zertaz ari gara zehazki? Kooperazioa da, finean, baina ezaguna dugun eredu klasikotik atera eta **ardatza herri indigenetako hizkuntzen biziberritzean jartzeari** deitzen diogu hizkuntza lankidetza. Zergatik? Gure herriak munduarekin partekatzeke esperientziarik edo jardunbiderik badu, hori euskararen biziberritze esperientzia delako eta uste dugulako gure ardura dela hegoaldeko herriein hori partekatzea.

Helburua: hizkuntza garapenaren erdigune

Garabide Elkartearen helburua garapenaren erdigunean hizkuntza jartzea da; hau da, **hizkuntzatik abiatuta gizartea garatzea** eta, beraz, modu transbertsalean lantzea kooperazioaren berezko helburuak: giza eskubideen defentsa, ekitatea, genero berdintasuna eta jasangarritasuna, besteak beste. Euskararen biziberritzeak ekimen zibiletik sortutako azpiegitura sarea izan du oinarri eta horrek esperientzia moduan ez du pareko gehiegi, horregatik da bereziki beharrezkoa honetan jardutea munduko hizkuntzen galera prozesua inoiz baino biziago den honetan.

Metodologia: esperientzia trukea

Kooperazio era berria egiten duen elkartea da Garabide, esperientzien elkartrukean oinarritzen den lankidetza. Laguntza asistentziala eman ordez, guk euskararen biziberritzearen alde lan egiten duten eragileen esperientzia hurbiltzen dugu Hegoaldeko herrietako hizkuntzen errealitatera, euren bidean aurrera egiteko heldulekuak izan ditzaten.

Lan-ildoak

Nagusiki 4 ataletan sailkatu daitezke gure proiektuak: formazioa, aholkularitza, dibulgazioa eta sentsibilizazioa. Bi dira Euskal Herrian egiten diren formazioak, Aditu Ikastaroa eta Ikastaldi Trinkoa, eta formazioa hegoaldeko herrialde desberdinetan ere eskaintzen dugu Hegoko Diplomaturetan. Aholkularitza alorrean, aldiz, Bidaide deitzen diogu gure lan lerro nagusiari.

- **Formazioa**

Garabidek jorratzen dituen proiektuen artean formazioari dagozkionak dira erro-errokoenak. Garabidek gauzatzen duen formazio proiekturik **garrantzitsuena Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programa** da, eta baita hizkuntzen berreskurapen arloan munduan egiten den bakarrenetarikoa ere. Programa honek forma ezberdinak izan ditu 2007an sortu zenetik, baina helburu bat eta bera izan dute esperientzia horiek guztiek: hizkuntza-aktibistek euskararen biziberritzearen esperientzia zuzenean ezagutzea eta beraien komunitateetan aplikatzea. Aurtengoa mota honetako programen 17. aldia izango da.

- **Aholkularitza**

Aholkularitzaren arloan **Bidaide** deitzen dugun hizkuntza plangintza integralerako programa nabarmentzen da.

Bidaide Programa **jatorrizko hiztun komunitateak garatzeko lankidetza programa integratua da**, hizkuntza plangintza integral bat egitetik abiatzen dena.

Munduko jatorrizko hiztun komunitateetan hizkuntzaren berreskurapena lantzen ari diren gizarte erakunde, pertsona, eragile publiko eta sozialen eta euskalgintzako erakundeen edo euskalgintzaren esperientzia pilatu dutenen arteko elkarlan zubia eraikitzea da programa honen helburua, Garabide bitartekari delarik.

- **Dibulgazioa**

Euskararen berreskuratzea liburu bilduma: Garabideren Ikerketa eta Garapen arloan kokatzen da zabalkunderako materialaren produkzioa. **Sorreratik lan egin dugu ez bakarrik hegoaldeko hizkuntza gutxituei begira, baita euskalgintzaren esperientzia ikertu, didaktifikatu eta hedatzearen alde ere.** Euskarak bide garrantzitsua egin du berreskurapenari dagokionez azken mende erdian baina hizkuntza minorizatu bezala etengabe aritu behar du normalizaziorantz lanean eta Garabiden ez dugu ahazten barrura begirako lan hori.

Erakundetik egiten den landa lana, beraz, material didaktikoarekin elikatu eta indartzen da, egiten dugun ikerketa eta produkzio lanari esker. Arlo horretan, **Garabiden azken 50 urteetan euskararen berreskurapenaren alde egin den lana sintetizatu eta sistematizatu dugu lau liburuxkatan** - euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez- eta Aditu Tituluaren (egungo Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programaren) bi ediziotako ikasleen gogoetak jasotzen dituen bi dokumental ekoitzi ditugu.

- **Sentsibilizazioa:**

- **Dokumentalen proiektzioa:**

Garabidek hizkuntza lankidetzaz ikus-entzunezkoak ekoitzi ditu eta **dozenaka herritan eta era askotako entitatetan egindako ekitaldietan** gai honetaz sentsibilizazio lanak egiteko erabili. Zabalkunde eta oihartzun mediatiko handiena izan duen ikus-entzunezkoa **“Beltzean Mintzo: Amerikako jatorrizko hizkuntzen arnasaz”** da. “Mai da bai eta ezetzik ez dago” maputxeen mapuzugun hizkuntzaren biziberritzea jasotzen duen dokumentalaren 2018ko aurkezpen bira ere esanguratsua izan zen.

- **Mahai-inguruak eragile indigenekin:**

Hizkuntzak Biziberritzeko Formazio Programetara etorritako ordezkari indigenekin herriz herriko birak egin izan ditugu, Garabidek laguntzaile dituen udal, enpresa, zein ikastola edo kultur elkarteen laguntzaz. Mahai-inguru horietan bertatik bertara aurkezten dizkigute ordezkariak euren komunitateak eta bertako hizkuntza-biziberritze lanak eta, aldi berean, Euskal Herriko egoeraz jabetzen dira. Hain solasaldi aberasgarriak izanik, hauek indartzeko apustua egin du Garabidek.

- ***Hizkuntza indigenak amalurra zaintzen erakusketa***

2021. urtetik martxan dagoen proiektua Hegoaldeko 4 probintzietako 40 herri eta hiri baino gehiagotan jarri da eta ugariak dira egiten ari diren bisita gidatuak. Erakusketak izen bereko liburua du oinarri eta honakoak dira helburuak: batetik, gure jardunbidea den hizkuntza lankidetzaz nola ulertzen dugun adieraztea. Hau da, zein balio, zein garrantzia eta zein aukera dituen bistaratzea. Bestetik, isilarazitako herri indigenetara hurreratzea, euren sentipenak eta sentiberatasunak ezagutzeko. Hori lortzen saiatzeko, bildumak 11 ipuin edo mito labur biltzen ditu, desagertzeko arrisku larrian dauden hizkuntza banatan idatzita eta komunitate bakoitzari dagokion hegazti txiki bati lotuta, metafora moduan.

- **Eskoletako proiektuak**

Garabidek Euskal Herriko hainbat udalerritako eskoletan hezkuntza proiektuak garatzen dihardu 2021az geroztik. Bide honetan aitzindaria izan da Errenteriako eskola guztietan aurrera eramaten den proiektua, “Hizkuntza aniztasuna gure eskoletan eta horren balioa komunitateen arteko elkarbizitzarako” izenarekin ezaguna, lau ikasturtez gauzatu dena. Gainera, “Munduko hizkuntza gutxiak protagonista EAEko hezkuntza komunitateen eraldaketan” proiektuari esker Garabide Galdakaoko Eguzkibegi Ikastola, Araiako Herri Eskola eta Bilboko Miguel de Unamuno ikasleekin aritu da lanean. Proiektu hauekin hizkuntza eta kultura gutxituei buruzko kontzientzia kritikoa eta hauen aldeko aktibazioa sustatzen da, distantzia luzeko begirada eginaz munduko txoko ezberdinetako hiztun komunitateei, eta, distantzia laburrekoa ikastetxean zein herrian aurkitzen diren hizkuntza eta kulturei.

II. ERANSKINA: BIHAR Kongresua

Aurten, Hizkuntzak Biziberritzeko Aditu Formazioaren baitan, BIHAR Nazioarteko Kongresura joateko aukera berezia izango dugu. Irailaren 23tik 26ra, Euskal Herri mailan, Biziberritze Prozesuan dauden Hizkuntza Komunitate Gutxituen Nazioarteko Kongresua burutuko da.

Hizkuntzetatik jalgitzen ari den mundua lelopean, kongresuaren helburua mundu mailako hizkuntza komunitateak elkartzea da, biziberritze-diskurtsoen inguruan hausnartzeko eta ikuspegi eraldatzaile batetik maila globalean kokatzeko. Lau egunetan barrena, mundu mailako adituak, hizkuntza-aktibistak eta hizlariak elkartuko dira **Bilbo, Irun eta Hendaia** artean.

Era berean, erdigunean jarriko dira prozesuaren aurreko bi faseetan (diagnostikoa eta sozializazioa) batutako ikasketak, diskurtsoak eta esperientziak, programa zabal baten baitan, zeinak hitzaldiak, mahai-inguruak, tailerrak, ikastaroak eta proposamen artistiko-kulturalak bilduko dituen. Hementxe duzue kongresuari buruzko informazioa ikusgai: <https://bihar.eus/>

Garabide Elkartea ekimen hau antolatu duten eragileetako bat da, **Plazara Kolektiboarekin, Soziolinguistika Klusterrarekin eta Taupa Euskaltzaileen Mugimenduarekin** batera. Kongresuaren egitaraua honakoa izango da:

- **Irailak 23, asteazkena (Bilbo, Euskalduna jauregia):** Kongresuaren hasiera ekitaldia
- **Irailak 24 eta 25 (osteguna eta ostirala)**
 - **Irun, Ficoba:** kongresuaren muina osatuko duten hitzaldiak, mahai-inguruak eta tailerrak
 - **Hendaia:** programazio kulturala osatuko duten ekintzak
- **Irailak 26, larunbata (Hendaia):** manifestuaren aurkezpena eta itxiera ekitaldia



**Informazio gehiago nahi izanez gero edo elkarrizketa bat
lotzeko, jarri gurekin harremanetan:**

www.garabide.eus

komunikazioa@garabide.eus

[+34-688.632.433](tel:+34688632433)